

MUNDUKO LEHENENGO MEZEA EUSKERAZ

Euskeraren harian dihardugunoi atsegín jaku honen historia ataltxuak jaso eta idazki xume legez irakurleari eskeintzea. Izan be badira jazoera politik ez eze benetan gogoangarriak, iraganaren tolesturetan galtzen itxi behar ez diranak.

Holako bat da *Karmel* aldizkari honetan aitatu nahi doguna: Arrazolan ospatu zan munduko lehenengo mezea euskeraz.

Gauza handia da ezer ez dan lekuan edo baso zarratuan bidea zabaltzea... Gero erraz eta eroso ibilten gara bide horretan zehar, berez egina eta beti hortxe egona balitz legez. Sortzaileari, zerbait abiarazten dauanari, oinarriak ezarten dituanari mirespena eta esker ona zor jakoz; gehiago oraindino euskerari jagokonean, eragozpenak askoz be ugariagoak eta handiagoak izaten dira-eta. Argi dago, gurean halako ekintza txalogarriak eragin dituenak bihotza maitasunez bero, burua argi eta irudimena zoli izan dabena.

1959ko ekainaren 21a zan. Gauza guztiak prest-prest egozan; ezer be ez zori aldiztoaren pentzudan. Orduko esku-programa eta argazkiak dira dinogunaren lekuko. Idatzizko beste lekukotasun batzuk be baditugu, gehienak ekintza honen eragile, eratzaille eta arima izan zan Jose Antonio Retolazak idatzizkiak. Esku artean dogu Bilboko Gotzain laguntzaile Karmelo Etxenagusia jaunak idatziriko orrialde bat eta erdiko testu bat be. Beraz, lantxu hau izenpetzen dauanak esku-eskura izan di-